



## **EBAZPENA (R 5/2008 espedientea, CARREFOUR)**

### **Osoko bilkura**

Javier Berasategi Torices, Presidentea  
Joseba Andoni Bikandi Arana, Presidenteordea.  
Juan Luis Crucelegui Garate, Bokala.

Jose Antonio Sangroniz Otaegi, Idazkaria.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 10ra.

Lehiaren Aldeko Euskal Auzitegiak, goian adierazitako osaketarekin eta txostengilea JAVIER BERASATEGI TORICES jauna dela, honako ebazpena eman du Centros Comerciales Carrefour S.A.k, 167/2007 espedientean aurkeztutako agirien konfidentzialtasuna dela-eta, Lehiaren Aldeko Euskal Auzitegiak bultzatuta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak hartutako erabakiaren kontra jarritako errekursoaren barruan.

### **I. GERTAKIZUNAREN AURREKARIAK**

(1) Centros Comerciales Carrefour S.A.ri (Aurrerantzean Carrefour) 2008ko maiatzaren 26an jakinarazi egin zitzaion Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren (LDEZ) Ekonomia eta Plangintza zuzendariak maiatzaren 21ean hartutako ebazpena. Ebazpen horretan zehapen-espedientea irekitzea (167/2007 zenbakiduna) erabaki zen, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen (LDL) 1. artikuluan debekatutako jokabideengatik, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiegunetan ez zabaltzeko hartutako balizko erabaki batekin lotuta.

(2) 2008ko urriaren 9an, Espainian dituen establezimenduen zerrenda eskatzeko espediente-instruitzailearen probidentzia jakinarazi zitzaion Carrefourri. Establezimendu horiek probintzia eta autonomia-erkidegoen arabera egon behar zuten antolaturik, eta 2005., 2006. eta 2007. urteetan zehar, establezimendu horietako bakoitzak zein igande eta jaiegunetan irekitzen duen adierazita, bai eta 2008. urterako prebisio bat ere.

(3) 2008ko urriaren 27an, LAEZak Carrefourren idazki bat jaso zuen, eskatutako agiriekin batera. Bertan, jaiegunetan irekitzeko 2008rako aurreikuspenaren datuak isilpean gordeko zirela zin egiteko adierazpen bat eskatzen zuen, Lehia Babesteko Legearen 52. artikulua araberakoa, kontu handiko informazioa baitzen ikuspuntu komertzialetik.

(4) 2008. urteko urriaren 29an, Carrefourrek espediente-instruitzailearen beste probidentzia bat jaso zuen. Bertan, ezezkoa ematen zitzaion 2008 urteko irekiera-jaiegunak isilpean gordetzeko eskabideari.



- (5) Lehia Babesteko Legearen 47. artikulua arabera, azaroaren 19an, Carrefourrek errekurtsua aurkeztu zion LAARI, aurreikuspen horren datuak isilpean gordetzeko eskabideari LAEZek 2008ko urriaren 29an ezezkoa emateko eman zuten probidentziaren aurka.
- (6) 2008ko abenduaren 2an, LDEAK LDEZri Espedientea bidaltzeko eta eman beharreko Txostena 5 eguneko epean emateko eskatu zion. LDEZk LDEAren eskaera epean eta moduan bete zuten
- (7) LAEAren osoko bilkurak errekurtsu horri buruzko eztabaida egin eta epaitza eman zuten 2008ko abenduaren 10ean.
- (8) Enpresa hau da interesatua: Carrefour S.A., IFZA: A-28/164754. Helbidea, jakinarazpenak egiteko: Ctra. de Burgos, Km. 14,500, Alcobendas, 28108.

## II. EGITATE FROGATUAK

- (9) 2008ko urriaren 29an, LAEZak ezezkoa eman zion, probidentzia bidez, Carrefourren eskabideari, 2008an zein jaiegunetan irekiko zuten jakiteko egindako aurreikuspenari buruzko datuak isilpean gordetzekoari. Informazio hori probidentzia bidez eskatu zen, eta 2008ko urriaren 9an jakinarazi zitzaion Carrefourri.
- (10) 2008ko urriaren 29ko probidentziaren laugarren azalpenaren arabera, *“Espediente honetan zerikusia duten enpresa guztiei eskatu zitzaien informazio hori, eta haiek eman egin zuten; instruitzaile honen ustez, informazio hori ezin da kontu handikotzat edo isilpean gorde beharrekotzat jo.”*

## III. LEGE-OINARRIAK

- (11) Laugarren tituluko (Prozedurez) lehenbiziko kapituluko hirugarren sekzioak (Prozeduraren Printzipio Orokorrak), 42. artikulua lehenbiziko paragrafoan honela xedatzen du: *“prozeduraren edozein unetan eman ahal izango du instruitzaileak, bere kabuz nahiz alderdietako batek eskatuta, isilpean gorde beharrekotzat jotako datuak edo agiriak isilpean gordetzeko agindua, eta atal bereizita osatu ahal izango du horiekin.”*
- (12) Halaber, otsailaren 20ko 261/2008 Errege Dekretuaren 20. artikulua, zeinak Lehia Defendatzeko Erregelamendua onartzen baitu, honela dio: *“Lehiaren Estatuko Batzordeari agiriak aurkezten dioten pertsona guztiek, ematen dituen datuak edo informazioak isilpean gordetzeko eskatzerakoan, arrazoituz egin beharko du eskaera hori, eta eskumena duen organoari egin beharko dio gainera,, dena delako espediente hori tramitatzeko prozeduraren barruan. Halaber, datu horien beste bertsio bat, isilpean gorde beharrik gabekoa, aurkeztu beharko du. Azkenik, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, 37. artikuluan*



erregistroetara eta espediente bat osatzen duten agirietara irispidea izateko eskubidea arautzean, salbuetsi egiten ditu, 5. paragrafoaren d) idatz-zatian, honako hauek: d) Merkataritzako edo industriako sekretuak babestutako gaiiei buruzkoak”.

(13) Bestalde, Lehiaren Estatuko Batrordeak adierazi duenez, isilpekotasunaren printzipioa ez da erabatekoa, zehaztaperen batzuk behar ditu: “(a) alde batetik, eskatzaileak badu betebeharrak, arrazoitu egin behar baitu eskabide hori, agiri horiek “merkataritzako edo industriako sekretuagatik babestu beharreko gaien artekoak baitira”. Hori dela-eta, kontzeptua aipatze hutsa ez da nahikoa eskabide horri baieztatzeko emateko. (b) Eskabide hori beste printzipio batzuekin baloratu behar da. Printzipio horiek ere, elkarren kontrakoak izan arren, berdin-berdin zaindu behar dira, hala nola zaindu behar diren norberaren interesak eta defentsarako eskubidea babesteko printzipioa, alde batetik, eta espedientera erakarrizko gainerako alderdiei eta espedientepeko gaiari buruz erabakia hartu behar duen organoari indefentsiorik ez eragiteko printzipioa. (c) eta, hori, ebatzi beharra duen organoa ez dadin bihurtu lehiaren arlo honetan asmo gaiztoak dituzten alderdiek “zorrozki erreserbatuak diren informazioak lortzeko” ezinbestean hautatu beharreko bidea.<sup>1</sup>

(14) Datuak isilpean gordetzeko eskabideen tratamendua arautzen duten printzipioak azaldu ostean, ebaluatu beharra dago ea Carrefourrek jaiegunetan irekitzeko 2008rako dituen egitasmoak jo ote daitezkeen merkataritzaren ikuspuntutik kontu handiz tratatu beharreko informaziotzat, alegia, ea datu horiek 167/2007 espedientera agertutako hirugarren pertsonen jakinaraziz gero kalterik eragingo ote litzaiekeen Carrefourri edo herri-interesari.

(15) Auzitegi honek gogorarazi beharra dauka 167/2007 espedientea hainbat enpresak eta elkartek jaiegunetan merkataritzako establezimenduak ez irekitzeko ustez egindako hitzarmen bati buruzkoa dela. Zehapen-espediente hau irekitzeak esan nahi du jaiegunetan irekitzea enpresen arteko lehiaren parametroetako bat dela. Era berean, jaiegunetan irekitzeko planak enpresa batek merkaturatu lehiatzeko duen estrategiaren isla dira, eta, ondorioz, merkataritzaren aldetik oso kontuz baliatzeko informazioa izan daiteke, enpresa batek beste enpresa batzuen ezkutuan gorde nahiko lukeen erakoa eta une horretan espedientea tramitatzeko behar ez dena. Lehiaren agintariek mesede eskasa egingo liokete lehia askeari, utziko balute espedientea irispidean izateko printzipioa informazio-planak eta –strategiak enpresen artean nahi gabe trukatzeko tresna bihurtu dadin. Horrela bada, Carrefourrek 2008. urtean zehar jaiegunetan irekitzeko bere egitasmoa isilpean gorde beharrekoa dela argudiatuz aurkeztutako errekurtsioa baietsi beharrekoa da.

(16) Laburbilduz, LDEAk erabaki du Carrefour-ek 2008 urtean zehar jaiegunetan zabaltzeko dituen planen isilpekotasuna babestu behar dela informazio horrek duen isileko izaera galtzen duen momentura eta denok ezagutzeko moduan geratu arte: Abenduaren 28a da urtearen azken jaieguna eta, beraz, LDEAren iritziz arrazoikoa da informazio honen isilpekotasuna gordetzea egun hori heldu arte.

<sup>1</sup> 2008ko urriaren 27ko ebazpena; R 0003/2008 espedientea, TRIO PLUS, FD 1., 16. or.



(17) Beste alde batetik, informazio hori isilpean gordetzeko betebeharrak badu egun bat iraungitzeko izendatua. Denboraren igarotzeak eta egitasmoan izendatutako jaiegunetan irekitzeak kendu egiten diote informazio horri bere isilpeko izaera, eta, hala, herri-jabariko bihurtzen da. Hala bada, informazio horren isilpekotasuna ezin da joan 2008rako izendatutako azken jaieguna baino harago, alegia, abenduaren 28a baino harago.

Hori guztia dela-eta, aipaturiko manuak eta oro har aplikatu beharreko gainerako manuak ikusita, hona hemen Lehiaren Aldeko Euskal Auzitegiaren ebazpena.

### **EBATZI DU:**

**BAKARRA.-** Centros Comerciales Carrefour S.A.k Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuaren urriaren 9ko probidentziaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtoa onestea. Probidentzia horretan ezezkoa eman zitzaion jaiegunetan irekitzeko 2008rako bere egitasmoaren datuak isilpean gordetzeko eskabideari. Nolanahi ere, informazio hori ez da isilpean gorde beharrekoa izango 2008ko abenduaren 29tik aurrera.

Jakinaraz bekio ebazpen hau Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuari eta helaraz bekio Centros Comerciales Carrefour S.A.ri. Jakinaraz bekio, orobat, ebazpen hau behin betikoa dela administrazio-bidean eta beraren aurka ezin dela errekurtsorik aurkeztu. Administrazioarekiko auzi-errekurtoa baino ezingo zaio aurkeztu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenari. BI HILABETEKO epea izango da horretarako, ebazpen hau jakinarazten denetik kontatzen hasita.